

Flexxx Sports-en negozioak ondo funtziona dezan, hornitzaile eta bazkide egokiak behar ditugu. Lehenik eta behin, kalitate oneko ehunak eta material erosoak eskaintzen dizkiguten hornitzaileekin lan egingo dugu, arropa iraunkorra eta transpiragarria izan dadin. Gainera, ingurunea errespetatzen duten enpresak aukeratuko ditugu.

Bestetik, arropa ekoizten eta banatzen lagunduko diguten enpresekin egingo dugu lan, produktuak garaiz eta egoera onean bezeroengana iristeko. Era berean, publizitatea eta sare sozialak lantzen dituzten bazkideak, kirol taldeak eta kirolariak izango ditugu, Flexxx Sports marka ezagutarazteko.